

UDAL JABETZAPEKO EDO ARDULARITZAPEKO BIDEEN
APROBETXAMENDU BEREZIKO ARAUA

INDARREAN 2004KO URTARRILAREN 1ETIK

(2003KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARREAN ONARTUA)

(G.A.O. 249 ZKIA-2003.12.31)

UDAL JABETZAPEKO EDO ARDURALARITZAPEKO BIDEEN APROBETXAMENDU BEREZIRAKO ARAUA

I. HELBURUA

1. Artikulua.

Udal honek, Udal Jaupiderako Oinarrien 7/85 Legeko 25. artikuluan aurrikusitakoarekin, Udalen Ondasunen Araudiarekin eta honekin zerikusia duten gainontzeko legezko arau guztiekin bat, udal jabetzapeko edo ardulararitzapeko bideen erabilera arrunta, berezia eta normala araupetzen ditu, eurotan ibiltzen diren pisu handiko ibilgailuen eraginez geratzen diren egoera txarra ekiditzearren, batez ere basoak dauden lekuetan egurra eta epeak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuen eraginez.

II. EZARGUNEA

2. Artikulua.

Arau honek udalerrri osoan izango du indarra.

III. BAIMENA

3. Artikulua.

Udal jabetzapeko bideetan zehar ibili behar duten garraiolari eta kontratistek dagokien udal baimena eskatu beharko dute, hurrengo hauek zehaztuz:

- a) Jabearen edo kontratistaren nortasuna agertzen duten datuak.
- b) Garraiaketarako erabiltzen diren ibilgailuen datuak, matrikula, egingo den ostera-kopurua, osterako garraiatuko den zama zehaztuz eta egingo den ibilbidea tokiko planoan adieraziz.
- c) Garraiatuko den zamaren bolumena estereo edo tonatan.
- d) Garraiaketak hasiko eta amaituko diren egunak.
- e) Materiala nonbait bilduko bada, non izango den.
- f) Materialaren jatorria dagoen mendiaren izena eta kokagunea, hala balitz, erreferentzia katastrala ere zehaztuz.
- g) Hala balitz, egingo den talaketarako baimena, basoen arloaz arduratzen den agintariak emana.

IV. DEBEKUAK

4. Artikulua.

Ezin da erabili:

- Har-ibilgailurik.
- Katez elkar lotutako ibilgailurik.
- Zolu gainean irristatzeko ibilgailurik.

- Erroldadura-bandadun ibilgailurik.
- Gehienezko orotarako pisua 26 tonakoa baino handiagoko ibilgailurik eta hiru baino ardatz gehiago duen kamioirik.

V. ERABAKIRAKO EPEA

5. Artikulua.

Baimena eskuratzeko prozedurarako eperik luzeena aurreragoko 3. artikuluan zehaztutako betekizunekin egindako eskabidea egin eta 15 eguneko izango da, epe honen ondoren, inolako ebazpenik zehazten ez bada, baimena emandakotzat hartuko delarik.

VI. PREZIO PUBLIKOAK

6. Artikulua.

- 1.- Udal baimena emandakotzat jotzeko, edozein kasutan, hala balitz, ezarriko liratekeen Prezio Publikoak ordaindu beharko dira aurretik, bien bitartean ezin izango delarik bideetatik ibili ez euron aprobetxamenduari ekin.
- 2.- Prezio Publikoak ez badira ordaintzen, baimena kendu egingo da.
- 3.- Udal jabetzapeko edo ardularitzapeko bideen aprobetxamendu bereziagatik ordaindutako Prezio Publikotzat bildutako zenbatekoak, hala balitz, bideok mantendu, zaindu eta hobetzeko erabiliko dira.

VII. LUZAPENA

7. Artikulua.

Baimenean zehaztutako egunerako aprobetxamendua oraindik amaitu ez bada, luzapena eskatu beharko da.

VIII. AGIRIAK ERAKUSTEA ETA ZAINZA

8. Artikulua.

Garraiolariak, garraiaketari ekiten dion edozein unetan, baimena eman duen udal erabakiaren originala eta kopia eta prezio publikoa eta fidantzaren gordailua ordaindu direla erakusten duten ordainketen egiaztagiriak erakutsi beharko ditu. Aipatutako udaltzain edo udal agintariei erakutsi beharko zaizkie, hauek hala agintzen duten guztian.

IX. FIANTZA

9. Artikulua.

Baimena eskatzen duenak, bideok erabiltzen hasi aurretik, fidantza bat ordaindu beharko du, bideok erabiltzeagatik eragin litzakeen kalteengatik.

Fidantza hau dirutan edo eragin litezkeen kalteengatik erantzungo lukeen banketxeko bermez egin ahal izango da. Era berean, Udalarekin konponbide hau eginez gero, fidantza aseguru-polizaren bidez ere egin ahal izango da.

Fidantzaren zenbatekoa hurrengo eskala honen arabera zehaztuko da:

BIDEAREN LUZERA

FIANTZA

1 Km arte.....	1,40 euro./est edo 2,12 euro./ton.
1 eta 2 km. artean	2,03 euro./est edo 3,05 euro./ton.
2km baino gehiago.....	2,34 euro/est edo 3,56 euro./ton.

(Gutxienerako fidantza, edozein kasutan 600 euroakoa izango da.)

Mendi baterako ordaindutako fidantza ezin izango da beste baterako erabili, nahiz eta egurra bi mendietatik aldi berean atera.

Fidantza itzultzeko prozeduraren erantzuna berau eskatu eta hilabete orduko egingo da. Epe horren ondoren erantzunik izan ez bada, nolabait balioztatuko diren ondorioak izango dira.

X. BIDEEN GARBIKETA

10. Artikulua.

Aprobetxamenduaz baliatzen direnek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideok edozein erabilgarritasunerako prest izango direla, aprobetxamenduak irauten duen bitartean beharrezkoak izan litezkeen garbidetak eta kononketak eginez.

Hala egiten ez bada, zeregin honetaz Udala bere arduratuko da, baina kostua haien kontura izanik. Dena dela, aprobetxamenduaz baliatuko direnek, ahal duten guztia egin beharko dute bideotatik zirkulazioarengan inolako kalterik ez eragiteko. Bideotan ezin izango da enborrik ez adarrik utzi. Gainera, ibilgailuek bideotan utzitako lurrak, harriak, e.a. ere baztertu egin beharko dituzte bidetik.

XI. TXOSTEN TEKNIKOAK

11. Artikulua.

Udal zerbitzu teknikoek ikuskaketak egingo dituzte eta bideon egoeraren berri emango dute, aprobetxamenduaren aurretik eta probetxamenduaren ostean. Txostenotan, argazkiak, agiri planimetrikoak, ikusentzutezkoak etabar erabili daitezke lagungarri.

XII. KONPONKETA LANAK

12. Artikulua.

Txosten teknikoa ikusita, baimena eman zaionari, bideotan egin beharreko konponketen berri, hala balitz, emango zaio, lanoi ekiteko epea ere jakinaraziz. Epe hori bukatu ondoren konponketok egin izango ez balira, UDalak berak ekingo dio zeregin honi haren kontura, kostua alde aurretik ezarritako fidantzak kenduko delarik. Fidantzako dirutza nahikoa izango ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko da harik eta kalte guztiak ordaindu arte.

Egindako kalteak konpon ezin balira, hondatutako ondasunen edo egindako kalteen balioa ordainduko zaio Udalari.

Udal-bide berberen aprobetxamenduaz aldi berean bat baino gehiago aprobetxatuz gero, kalterik balitz,

erantzukizuna erabiltzaileen artean erdi bana banatuko da.

Pertsona batzuk udal bide berdinak erabiliko balituzte, eta kalteak egon ezker, erabiltzaile ezberdinen artean erantzukizunen sail banaketa araberakoa egingo da.

XIII. BITARTEKARITZA, ITUNEBIDEA ETA ARBITRAIA

13. Artikulua.

Kalteen edo konponketen balorazioa dela eta Udalaren eta erabiltzailearen artean ez adostasunik balego, bi alderdiok, horretarako ados jarrita, bitartekaritza, itun-bide eta arbitraiazko auzitan sartu ahal izango dira, dena dela honetarako hitzarmena, ituna, adostasuna edo kontratua sinatu beharko dutelarik. Auziokatik sor litezkeen gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

XIV. BAJA AITORTZEA

14. Artikulua.

Aprobetxamendua amaitzen denean, interesatuak behartuta daude baxaren aitormena egitera. Berau, Udal Ardulararitzan bertan egingo da eta aurkezten den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

XV. JABEAREN ERANTZUKIZUNA

15. Artikulua.

Garraiatzen diren materialeen jabeak izango dira Arau honetan zehazten direnak betearazten arduratuko direnak.

XVI. HARROBIAK, MEHATZ-IHARDUERAK ETA LURRAK LEKUZ ALDATZEA

16. Artikulua.

Bideok harrobietako materialeak garraiatzeko edo lurra lekuz aldatzeko erabiltzen badira, iharduera honetaz arduratzen diren enpresak izango dira bideen mantenimenduaz ibilbide guztian arduratuko direnak.

Aldiz-aldika bideok ikuskatu egingo dituzte udal zerbitzu teknikoek, eta ikusitako kalte guztiak aipatutako enpresa horiek ordaindu beharko dituzte.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, 2003ko abenduaren 29. egunean onetsi zen behin betikoz, eta 2004ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean eta bere aldaketa edo derogazioa erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

Anoeta, 2005eko abenduaren 31a.

O.E Alkatea,-

Idazkari-Kontuhartzailea,-